

BETIKO ARGi ZABALEAN

BIZI-LEKUTIK JOAITEA

Airea : Goizian argi hastean (Etxahun-Iruri)

1/ Bizi-lekutik joaitea,
Etxekoen uztea,
Lagunen ganik berextea,
Horra gure zortea ...
Bainan zu zare, Jesus maitea,
Zerurako bidea.
Emaguzu, Jainko Semea,
Zu baitan sinestea.

2/ Betlemen mundura jina,
Nazareten zurgina,
Jesus Jainko gizon egina,
Gu denen lagun mina.
Jasan zinuen itze-burdina
Esku-oinetan barna ...
Oi ! Zer maitasun hasperena,
Zure oihu samina !

ARTEKO KANTUA

(De Profundis 129-garren salmoa)

Airea : Xalbador « Jesus kurutzeaz... »

1/ Lur apaletik, Jaun guziz ona,
Otoitzez ari nitzazu.
Zeru gainetik nere oihua
Otoi gaur entzun ezazu !
Naizen trixteak egin gaizkia
Gogoan hartzen baduzu,
Zuri so, Jauna, nor egon laike ?
Dei xume hau hel bekizu !

2/ Beldurrez bainan fidantzarekin
Jaunari beha nago ni ;
Harek du Hitza obraz bermatzen
Eta barkatzen orori.
Gau-zaina erne goiz-argiari,
Ni erneago Jaunari,
Herri guzia hain amultsuki
Salbatuko duenari.

BERRI ONA KANTUZ Jn 13, 1-15.

Nik zueri egin bezala, bakotxak egin dezala.

Jaunak oihal bat hartzen du eta gerrian lotzen ;
Lagunen zangoak ditu garbi eta xukatzen.

“ Ez du garbitze beharrik mainatu berri denak ;
Halaber garbi zarete, zuek, bainan ez denak ”.

FEDEDUNEN OTOITZA

(airea : Orhiko txoria)

1/ Bizi nahian direnez
Herioak damurik ez ...
Otoitzean bat eginez,
Hemen gaude doluminez.

Argi zazu otoi Jauna, Itzali zaikun laguna ! (bis)

2/ Ez da munduan jenderik
Noizbait erortzen ez denik ...
Barkamena zuk emanik,
Dugu zerua zabalik.

3/ Gure azken aldakuntza
Gisa guziz oren latza ...
Zoin gora dugun egoitza !
Emaguzu hango giltza.

4/ Salbatzaile amultsua,
Pitz bekigu zure sua.
Gaur gure otoitz kartua,
Izan bedi indartsua.

OGIAREKIN ARNOA

Airea : Urtxo xuria errazu

1/ Ogiarekin arnoa,
Opari aspaldikoa.
Hori eskaini eta Jesusek
Jasan du Galbarioa :
Zoin salbagarri guretzat
Izan den ondorioa,
Izan den ondorioa !

2/ Jesusek zuen afaldu
Eta noraino apaldu !
Kondenatua izanik ere,
Gutaz baitzen urrikaldu,
Gurutzearen gainean
Besoak zauzkun zabaldu,
Besoak zauzkun zabaldu.

O JESUS OGIAREN ITXURAN GORDEA

Airea : Galerianoarena (Bordaxuri)
edo Xarmagarria zira edo bertze edozoin.

1. O Jesus ogiaren itxuran gordea,
Zure Hitzaren baitan dugu sinestea.
Orori emaguzu elgar maitatzea,
Hemen hartzen duguna bester emaita.
2. Lur huntan maitasuna galtzen da erreki :
Gerla baten pizteko, demendren bat aski ...
Ahatik Berri Ona hor baita uruski,
Mezua izan bedi entzunik leialki.
3. Bazko aintzin bildurik ortzegunarekin,
Afaltzen ari zinen zure lagunekin.
Heien oinak xukatuz oihal txar batekin,
Zonbat hunki gaituzun egintza horrekin !
4. Nagusia zen mintzo bere mutilari :
« Zu ere ni bezala izan zerbitzari ».
Gauden so gau hartako azken emaitzari,
Indar guziz lotzeko Jaunaren Hitzari.
5. Artzain ona, zuri gaur guk egin galdea :
Norat ari ote da zure artaldea ?
Uztaren biltzalerik agertuko dea ?
Otoi susta ezazu fededun gaztea !
6. Jesus, gurekin zaude, arkaitza iduri,
Gu denentzat baituzu odola ixuri.
Egizu sor ditezen zonbeit artzain berri,
Ogiaren hausteko zure orroitgarri.



GIZON EGIN JESUS JAUNA

Airea : Jeiki, jeiki etxeoak, argia da zabala

1. Gizon egin Jesus Jauna,
Zuk nauzu salbatuko,
Zuk nauzu salbatuko.
Zurekin zeruko bide
Xuxena dut hartuko.
Hil ondoan zuri esker naiz
Bizirik xutituko,
Bizirik xutituko.
2. Hain zabal den bihotzari
Osoki naiz fidatzen,
Osoki naiz fidatzen.
Zure Hitza sinetsirik,
Nitzaizu gomendatzen.
Bai eta nere huts guziez
Barkamendu eskatzen
Barkamendu eskatzen.
3. Herria zinuen maite
Nigar egiteraino,
Nigar egiteraino.
Ez dituzu herritarrak
Ukatu egundaino.
Zure mezua hortan ere
Bizi bedi oraino,
Bizi bedi oraino !

AMA ZERUKOA

Airea : Lurdeko lorea (Pierre Narbaitz)

**Ama zerukoa, ezin ahantzizkoa,
Sortu duzun haurñoa,
Seme Jaun Goikoa !**

1. Zure haurren baitan, ilun da frangotan ;
Jesusen bidetan goazen lorietan !
2. Jainkoaren ganik hainbeste ukanik,
Zaude betidanik besoak zabalik.
3. Bekatore gira, zuk otoi begira,
Hel gaiten argira, betiko bizira !

Hitzak : Roger Idiat

2003-aren Urtarrilan.